

Oihane Zuberoa Garmendia

Zuritik zurira. Azurmendiren poesia kromatikoa

Finlandiako elurra nola, ixil eta zuri etorri zinen mundura, *aspaldiko ume zuri*. Izarren argiak zintuen txunditu [*izartegien betiko jira-bira huts hondogabeak*], eta lamien ipuin ederrak, haien agerpen zuriz, lokartu [*lamiak pinupean, uretatik irten berri*].

Baina elurraren ostean dator elur bustia, lokatz eta buztinez nahasirik [*lurra odolez errea*]. Eta konturatu zinen beltz datorrela mundua gugana. Cupidagabe. Behin eta berriro. [*Aita hil, aita hil, aita hil dit Jainkoak. Eta urtero berriz, eta egunero berriz, eta gauero berriz eta berriz hiltzen dit*].

Eta hotz dela kanpoan nola barnean [*zer da hotza, arima hotzarentzat?*]. Izartegiaren argiaz lekore bizi dela gizona [*goian izarrak bizitza zuri. Gizonak, aldiz, munduan bizitza gizonetzko*]; Kristo minero beltza dela, lurraren barrenak dituela esku zatarrez haztatzen. Eta pinuen hegoak ere beltz direla, mendiak, airea eta urteak bezala. *Eguzki beltzak* elikatzen duela poetaren arima; *poema beltzaren arbolak* itzal ematen.

Eta ilun hori izan duzu lehen eta azken gai, eraikuntza eta aldi berean eraispenerako material, *hosto guztien begi berdeak* jantzi baitzenituen

sehaska kanta beltzari
barreneko minari
herri-neke eta tristeari
zuzen-zuzenean begiratzeko.

[*Maite dut nik mundua ezin banau poztu ere*].

Pozaren kolorea baita berdea [*bizitza pasa da tanta berdeak bidean*]. Itsasoko urarena. Inposiblearen hitza bilatzen duenarena. Presaka dabilenarena [*pagoa geldi dago bidearen ertzean, ezin du konprenitu nire presa bidean*]. Eta mundura zuri gatozen moduan, etorkizuna ere zuri-zuri ikusi nahi dutenena.

*[Poz berde bat,
esperantza, gorri-gorri.*

*Nork daki orduan ez ote diran
langileak atera irtengo
egun berriaren argira
etorkizun libre bat zuri-zuri hasteko].*